

Konstituzio bermatua

Euskaldunon Egunkaria, 1995-07-18: 2.

Konstituzioa, Estatu baten oinarritzko Legea da. Hiritar guztientzat demokratikoki berdina izan behar duena; bereziki kasu honetan hiritarra Segurtasunerako Estatu Idazkari izan bada. Ez da orain, baina lehen egindakoak ordaindu gabe irten da; eta ez dira arinak, zeren eta epailearen iritziz "oso larriak eta sistema konstituzionalaren aurkakoa" izan dira, eta politikan arbitrarioki jarri zaion 200 miloi pezetako kontua PSOE bere partiduak, bermatzaile izan delako irten da; beste asko irtengo lirakeen bezala. Hau lehen aldiz irakurtzen ari denak, eta ez da erraza gaurko giroan honelako irakurle sosorik aurkitzea, pentsatuko du, bananak zuhaitzetik ahora zuzenean erortzen diren herriren batez ari garela. Eta ez, gu hauek hiritar garen Estatu batean gertatu berria da. Eta ez behin, hiru egunetan bi aldiz gertatu da, xehetasun bat edo beste aparte, zeren eta orain gutxi eta eskandalu handiz preso jarri zuten CESID-eko gaizkile bat espetxetik irten da, "atara" egin dutela esan behar genuke hemen ere, baina berez bezala irten da kazetariak apuntatutako 13.15 ordu zehatzean Madrilgo Alcalako espetxe militarretik. Hau bai, preso ohi hau ezin da Escorialeko Los Arroyos urbanizazio barrutik irten! Hau sinetsi nahi duena, libre da, baina Alcalatik irteteko izan duen balentria ez da pentsatzeko beste jauzi hau egingo ez dezakeenik.